# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2721

*730/2017 EBAZPENA, maiatzaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Michol González Torres andrea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi lanpostutik kentzeko.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 453/2014 Ebazpenaren bidez (EHAAren 82. zk.an argitaratu zen, maiatzaren 5ean), Michol González Torres andrea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Michol González Torres andrea Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari nagusi lanpostutik kentzea, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek interesdunari jakinarazten zaionetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Bilbao-Basurto Erakunde Sanitario Integratuari, eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.